

Meza nagusian Juan Maria Lekuona-k egin zuen sermoia. Zenbait bertsolari bertsotan saiatu zan. An ziran Uztapide, Basarri, Azpillaga, Lopategi, Lazkao-txiki, Lizaso, Lasarte eta Uranga. Bazkari bat egin zan eliza ondoko frontoian. Jendea erruz. Euskaltzaiñetatik Aita Antonio Zavala, Antonio Labayen eta Alfonso Irigoyen. Eliza aurrean Pello Mari Otaño-n estatua eder bat ipiñi da.

IRU EUSKALTZAIÑEN SARRERA ITZALDIEN ARGITARATZEA

Gure Herria eta **Egan**-en argitaratu diran ezker eztitugu berriz jartzen **Euskera**-n. Ona nola aurkitu litezkean:

Gure Herria, 1963, p. 203-223. "Haritschelhar euskalzain jaunaren mintzaldia". "René Lafon euskalzain jaunaren ihardespena".

Egan, 1964, p. 19-35. "Luzaideko otoitz ttipiak. Jose M. Satrustegi jaunak Euskalzaindian sartzeko, Luzaiden egin itzaldia". "Aingeru Irigaray euskalzain jaunaren iardespena".

Gure Herria, 1963, p. 323-339. "Euskalzaindian sartzeko mintzaldia" (P. Larzabal). "P. Lafitte-n ihardespena".

K- ETA Z-REN ARTEKO ALDAKUNTZAZ OHARPEN LABUR BAT

Gure eskualzain-kide jakintsun Luis Michelena jaunak handizki lagundu ditu eskual-ikertzaileak, hoienerako **Textos arcaicos vascos** eman dituelarik. Asko auzi eraikiko edo berrituko dauzku liburu eder horrek, eta ez nolana-hikoak.

Egun batto baizik ez nuke nahi aipatu, ez balañbada ere premia handi-handikoa.

Hogoi-ta hemezortzigarren orri-aldean ikusten dugu erderaz **Carcastillo** deitu tokiak eskuaraz **Zarrakaztelu** duela izena.

Zer gertatu da bada? **Car** erromana **zar** bilakatu othe da eskualdunen aho-mihitan?

Michelena jaunari kanore gutikoa zaio aldakuntza hori, eta **Serracastello** izen zaharra nahiago luke ezagutu **Zarrakaztelu**-ren aitatatzat, **Carcastillo** oraino bizi dena baino.

Aitatasun horren ukatzeko ez dut nik ez biderik, ez gutziarik.

Bertzeak bertze nork daki **Carcastillo**-k ez duenetz bakarrik aspaldiko urtetan zedilla bat galdu? Lapurdin baditugu **Carcabal** batzu, **Zarzabal** batzuen legezko eta bidezko seme-alabak direnak, zedilla salbu.

Lerro labur hauietan nahi nuke ber-bera erakutsi eskuara aise lerratu dela zorbait aldiz **k**-tik **z**-rat eta ez dela hortaz harritzekorik.

Orok dakiguna: Kristoren ondoko hirugarren mende azkentsuraino, latinak zintzurraz ahoskatzen ohi zituen **Cicero**, **cecidi**, **cilices** eta holakoak, guk orai

zizotzen edo txitxotzen ditugularik: **Zizero, zezidi, zilizer** edo **txitxero, txetxidi, txilitxex** ahoskatuz.

Kikotzetik zizotzerako aldakuntza hori ez da bet-betan egin, ez eta dudamuda asko gabe.

Zonbaitek **k** soinua begiratu dute **e** eta **i**-ren aintzinean ere edo **g** ahoskatu dute doi-doi eztituz, erran nahi dut elkortuz: hortik ditugu **bake, kima, gima, gela, gertu** bezalako hitz andana batzu.

Bertze batzuek, ordaínez, **a, o, u**-ren aintzinean ere **k** gogorra haizatu dute eta **z**-ri lotu zaizko.

Gisa hortan nahasteka pozi bat gertatu dela eskuararen fonetikan ez ditake uka.

Itzen ontzeko, **s** eta **ts** zonbait sartu dira artean.

Ororen barru huna birazka emanik erro edo sustrai bereko hitz batzu, **k** eta **z** aldizkatzen dituztenak:

KA, ZA

Kalamastra eta **zamastra** (Lat. Van Eys).

Kamastra (BN.).

Karramiko (BN.) eta **zarramiko** (L. BN.).

Karramiska (BN.) eta **zarramiska** (S.).

Karramarro (L.) eta **zamar** (L.).

Lat. **catula, canícula** eta **zakur** (C.).

KA, SA

Kaphar (S.) eta **saphar** (BN. S.).

KE, ZE

Keleuma (L.) eta **zeleuma** (L.) (Hiribarren).

KI, ZI

Kizkor (N.) eta **zizkor** (L.).

Kirau (N.) eta **zirau** (L.).

Kizkola (L.) eta **zizkola** (N. L.).

Kirri-marra (N.) eta **zirri-marra** (C.).

KI, TSI

Ihardoki (C.) eta **ihardotsi** (BN.).

GI, ZI

Girgil (C.) eta **zirgil** (L.).

KO, ZO

Lat. **cohortem** eta **zorte** (jergada) (BN. L.).

Lat. **columba** eta **zoluma** (L.).

KO, TSO

Dioko (L. N.) eta **diotso** (B.).

KU, ZU

Kurka eta **zurka** edo **zurga** (ahatara).

Kunkur (N.) eta **zunkur** (L.).

Lat. **culum** eta **zulo, zilo**.

Lat. **cuvam** eta **zuba, zuban**.

Horra begi-ukaldi batez hauteman ditudan zombait kasu. Ene iduriko, era-kusten dute **k** eta **z**-ren arteko aldakuntzak bein baino gehiagotan izan direla.

Hasi baizik ez dudan aztertze edo ikertzea behar ditake hedatu eta behar-bada, zuetarik zombaitek artea duketelarik, bururaino eremanen dute lantto hau. Atsegin handia lizaiket. Uste dut baden auzi huntan zedilla baten gora-beheraz bertzetik.

P. Lafitte.

MIEMBROS DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

Académicos de Número

- Antonio Arrue - Garibay, 13, 3.º - SAN SEBASTIAN.
 Louis Dassance - Ingénieur agronome - USTARITZ (B. P.) (France).
 R. P. Xabier Diharce - Abbaye Notre Dame de Belloc - URT (B. P.) (France).
 Guillaume Eppherre - Aumônier - Collège St. Bernard - BAYONNE (France).
 Eusebio Erquiaga - García Rivero, 4, 3.º dcha. - BILBAO.
 Juan Gorostiaga - Trinidad, 5 - ALGORTA (Vizcaya).
 Jean Haritschelhar - "Elorrieta" - Route de Lamigotte - ANGLET (B. P.) (France).
 R. P. Dámaso Inza - PP. Capuchinos - CONSTITUCION (Chile).
 Angel Irigaray - S. Esnaola, 11, 1.º - SAN SEBASTIAN.
 Alfonso Irigoyen - B. Santiago, 21 - BILBAO (Vicesecretario).
 Federico Krutwig - 10, Avenue Louis Barthou - BIARRITZ (B. P.) (France).
 Antonio M.ª Labayen - San Francisco, 35, pral. - TOLOSA (Guipúzcoa).
 Pierre Lafitte — Petit Séminaire - USTARITZ (B. P.) (France).
 René Lafon - Villa Mariana, 55 bis, Avenue Ganbetta - ARCACHON (France).
 Pierre Larzabal - Curé de Socoa - CIBOURE (B. P.) (France).
 Manuel Lecuona - Colegio Berrospe - ANDOAIN (Guipúzcoa).
 José María Lojendio - Guetaria, 2, pral. - SAN SEBASTIAN.
 Juan San Martín - Mekola, 7, 3.º - EIBAR (Guipúzcoa).
 Luis Michelena - Goiko Kalea, 6 - RENTERIA (Guipúzcoa) (Secretario)
 José María Satrustegui - URDIAIN (Burunda) (Navarra).
 Juan Miguel Seminario Rojas - VERA DE BIDASOA (Navarra).
 R. P. Luis Villasante - Santuario de Aránzazu - OÑATE (Guipúzcoa).
 R. P. Antonio Zavalá, S. J. - Colegio de San Ignacio de Loyola - Ategorrieta - Apartado 410 - SAN SEBASTIAN.